

THINK TANK

Kultura politiko berriari buruzko eztabaida prozesua: 6. lan dokumentua

EZTABAIDAREN JARRERAZKO ETA PROZEDURAZKO BETEKIZUNAK

(2020ko abenduaren 16a)

Lan dokumentu honek beste urrats bat ematen du hausnarketa kontzeptuala eta praktika kultura politiko berri bati buruzko eztabaida prozesuaren testuinguruan integratzeko. Zehazki, Manuel Villoriak 2020ko azaroaren 18ko saioan planteatutako kontzeptuak eta esparruak 5. lan dokumentuan jasotako ekintzarako ardatzekin konbinatzen ditu.

Aurkezpenean, Manuel Villoriak eztabaidaren jatorri teorikoak eta gaur egungo oinarri teoriko eta kontzeptualak partekatu zituen, eta, eztabaida prozesuak sortzeko zailtasunei buruzko hausnarketa bat gehitu ondoren, zergatik eta nola eztabaidatu behar den eta talde lanak eztabaidarako duen garrantzia aztertu zituen. Esparru hori gogoan, tailer honetarako lantaldeak tailerretik tailerrera bitartean elkarrekin edo, gutxienez, koordinatuta lan egingo duten pertsonak osatu zituzten, think tank-eko hausnarketak beren lan eremuetako prozesu esperimentaletara eramateko. Honako hauek azaroaren 18ko saioan aurkeztutako kontzeptu eta markoei buruz talde bakoitzak egindako hausnarketak dira.

Think tank-eko oinarri teorikoen eraikuntza kritikoa

Talde honen lana bere rola eta bere funtzionamendurako joko arauak definitzea izan zen. Elementu hori garrantzitsutzat jo zuen Manuel Villoriak bere hitzaldian. Hala, lehenik eta behin, helburu bat definitu zuen bere eztabaida prozesurako: «kultura politiko berri bati buruzko eztabaida prozesua oinarri teoriko-kontzeptual sendo batez hornitzea, modu isolatuan planteatu ordez, think tank-aren kudeaketan integratuta».

Horrek eragina izan behar du eztabaida lankidetzazko gobernantzaren ardatz gisa txertatzerakoan, Etorbizuna Eraikiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoen testuinguruan. Lan hori hasten da eztabaida prozesuan bertan parte hartzen dutenek lankidetzazko gobernantza bat eraikitetik, think tank-aren esparruan.

Taldeak azpimarratu zuenez, eztabaida prozesu horretan parte hartzen dutenek ezin dute eraiki kontzeptu bat [kultura politiko berria / lankidetzazko gobernantza] eta horren esanahi praktikoa esperientziatik soilik. Horregatik, talde espezifiko horren lana garrantzitsua da. Azkenik, lantaldeak adierazi zuen bere lanak formulazio teorikoa pertsonetara, egituretara eta politika publikoko lan moduetara hurbiltzeko erronka planteatzen duela.

Herritarren eta gizarte antolatuen inplikazioa

Talde horrek, halaber, ponentzian planteatutako kontzeptuak hartu zituen bere helburu eta prozedurei buruz hausnartzeko, kontuan hartuta lantzen duten helburu espezifikoak lau proiektu zehatzen (Arantzazu Lab, Badalab, Debagoiena 2030 eta Herrigintzan Berrikuntza) eraldaketa prozesuekin esperimentatzea dela.

Hausnarketari esker, talde horren lana praktikatik ikastea izango dela identifikatu ahal izan zen. Bere posizioa ez dator bat aurreko taldearen ekarpenarekin, Etorbizuna Eraikiz Think Tank-ean elkarrekin bizi diren jakintzaren baterako sorkuntzarako hurbilketa desberdinak erakusten baititu.

Taldeak ponentziazatik hartu zuen ideia nagusietako bat da gobernantzaren legitimitatea areagotu egiten dela elkarrizketaren bidez akordioak zabaltzen diren heinean. Testuinguru

horretan, eta ikuspegi praktikotik, taldearen ustez euskara elementu kohesionatzailea izan daiteke gobernantza berriak eskatzen dituen baldintzak sortzerakoan; izan ere, kultura politiko berriak eskatzen duen lankidetzazko gobernantza garatzen lagundu dezaketen ideia eta esperientzia ugari daude eremu horretan. Lanerako bide gisa aurreratu zen elkarren artean konektatutako 10-15 proiektu erraz bilatzea, elkarrekin ehun esanguratsua eta aberatsa planteatzeko.

Administrazio publikoaren eraldaketa

Talde hori Gipuzkoako Foru Aldundiko kideek osatzen dute, eta eztabaida prozesurako helburu zehatz bat definitzen ere lan egin zuen. Helburu hori honela islatu zen: «Pertsona bideratzaileak identifikatzeko erronkari helduko diogu, eta haien bideratzaile gaitasunak garatuko ditugu, Aurrerabide programa hainbat departamentutan abian jartzeko».

Honako ideia hauek hartu zituen taldeak hasierako aurkezpenetik, bere lanaren inspiratzaile gisa:

- Komunikatzea garrantzitsua da elkar ulertzeko
- Sistemak (merkatua/burokrazia) zintzotasunez planteatutako eztabaida prozesu batzuekin amaitu du
- Garrantzitsuena jarrerak dira
- Ez da gauza bera talde bat edo ekipo bat
- Eztabaida prozesuak ez dira berez gertatzen: landu eta kudeatu egin behar dira

Ezagutzaren kudeaketa eraldaketarako

Talde hori Gipuzkoako hainbat unibertsitatetako ordezkariak soilik osatzen dute, zeinak Etorkizuna Eraikizun eta, zehazki, think tank-ean integratu diren rol desberdinekin. Kasu horretan ere, taldearen helburuei eta parte-hartzaile bakoitzaren rolei buruzko eztabaida izan zen hausnarketaren ardatza. Think tank-ean politikakoak soilik ez diren espazioak sartzearen garrantzia azpimarratu zen, eta talde horrek aukera ematen duela unibertsitaterako espazio bat nola integratu daitekeen ikusteko.

Taldeak onartu egin zuen parte-hartzaile bakoitza prozesu horretan parte hartzen hasten dela, bere beldur eta botere jokoekin, eta hitz egin eta negoziatu egin behar dela pertsona bakoitzak hausnarketa horiek bere jardura eremura nola eramango dituen. Araudiari dagokionez, argi dago parte-hartzaile guztiek onartzen dutela ez daudela think tank-ean liskarrak elikatzeke, baizik eta helburu partekatuko batekin lan egiteko. Hala ere, talde izatetik ekipo izatera pasatzea erronka da oraindik.

Taldearen «jokoaren arauak» planteatzeko ideiare jarraituz, erabaki zen metodologia bat aplikatzea prozesua «jakinduriaren gerra» bihurtzea saihesteko.

- Bilera bakoitzean gai bat hartuko da
- Parte-hartzaile bakoitzak bere ikuspegitik landuko du.
- Ikuspegi horiek partekatuko dira, bat egiteko presiorik sentitu gabe
- Abenduko saiorako erabaki zen teoriaren eta praktikaren artean dagoen distantziari/hausturari buruz eta praxiaren kontzeptuari buruz hausnartzea.